

**OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
JUSTIZI, EKONOMI,  
LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
ETA OSASUN SAILA**

**Zk-6251**

280/1996 DEKRETUA, abenduaren 3ko, Vitoria-Gasteizko «Asociación de Minusválidos Físicos de Álava, (AMFA)» delakoa herri onurakoa dela aitor-tzeko dena.

Bazkuneel buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legeko 22. atalean ezartzen denez, Euskadiko interes orokorraren alde egiten duten elkartei, inskribatuta baldin badaude, herri-onurako izaera aitortu ahal izango zaiet.

Lege horren babesean, Asociación de Minusválidos Físicos de Álava, (AMFA)» elkarteak izaera hori aitor dakiola eskatu du, bere ustez, burutzen duen jardunaren bidez minusbaliotasun fisikoren bat duten gizon-emakumei gizartean eta lan-munduan sartzen laguntzen dielako, eta ondorioz, herri-onurakoa izatea merezi duelako.

Asociación de Minusválidos Físicos de Álava, (AMFA) elkartea 1980an eratu zen eta Elkarteen Erregistroan 1980ko urtarrilaren 29an inskribatu zen; bere jardute eremua Araba Lurralde Historikoa da eta Vitoria-Gasteizen du helbidea.

Eratu zenetik «AMFA» elkarteak bere helburu sozialak lortzeko burutu dituen jarduerak ugariak eta era askotakoak izan dira. Jarduera hori borondatezkoa eta altruista izan da eta hainbat herri administraciorekin eta talde hori gizartean eta lan munduan sartzeaz arduratuta dauden beste erakunde batzuekin burutu izan da; lan horretan lortu du hain zuzen ere, ospea eta helburu horretarako lanean diharduten instituzio publiko zein pribatuen aitormena.

22. ataleko hirugarren idaztak agindutakoaz bat etorri, herri-onurako deklarazioa Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez egingo da, arloa dela-eta kasuan kasuko sailak proposatuta eta sailek eta interesatuta dauden erakunde eta entitateek txostena eman ondoren. Agindu hori betez, horretarako eskaria egin zaien sailek eta instituzioek txostenak egin dituzte eskatutako aitormenari babes eta adostasuna emanez.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administratzio sailburuak, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantz sailburuak eta Osasun sailburuak elkarrekin proposaturik, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko abenduaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.- «Asociación de Minusválidos Físicos de Álava, (AMFA)» elkartea, Elkarteen Erregistro Nagusian AS/R.P.A./00337 zenbakiaz inskribatua baitago, herri onurakoa dela aitorztea, bere jarduerekin*

**DEPARTAMENTOS DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA,  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
ECONOMÍA, TRABAJO  
Y SEGURIDAD SOCIAL  
Y DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

**Nº-6251**

DECRETO 280/1996, de 3 de diciembre, por el que se reconoce como de Utilidad Pública a la Asociación de Minusválidos Físicos de Álava «AMFA», de Vitoria-Gasteiz.

El artículo 22 de la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, establece que podrán ser reconocidas como de Utilidad Pública las Asociaciones inscritas que contribuyan con el desarrollo de sus actividades a la promoción del interés general de Euskadi.

A su amparo, la Asociación de Minusválidos Físicos de Álava «AMFA» ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que realiza en la promoción y fomento de la integración social y laboral de las personas con discapacidades físicas hacen merecedora a la Asociación del reconocimiento como entidad de Utilidad Pública.

La Asociación de Minusválidos Físicos de Álava «AMFA» es una entidad constituida en 1980, habiéndose inscrito en el Registro de Asociaciones con fecha 29 de enero de 1980, que extiende su ámbito de actuación al Territorio Histórico de Álava, y fija su domicilio social en Vitoria-Gasteiz.

Desde su constitución «AMFA» ha desplegado una prolífica y variada actividad encaminada a la consecución de sus fines sociales, tarea que ha venido llevando a cabo de forma totalmente altruista y voluntaria, en colaboración con las diferentes Administraciones Públicas y con otros organismos preocupados por la integración social y laboral de este colectivo, y en cuya ejecución se ha ganado el prestigio y reconocimiento unánime de cuantas instituciones públicas o privadas se encuentran involucradas en dicho objetivo.

Conforme a lo dispuesto en el párrafo tercero del mencionado artículo 22, la declaración de Utilidad Pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda por razón de la materia, previo informe de los mismos y de los entes y organizaciones interesados. En cumplimiento de dicho mandato, los Departamentos e instituciones requeridos han emitido los oportunos informes en los que muestran su apoyo y conformidad con el reconocimiento solicitado.

En su virtud, a propuesta conjunta de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública, Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social y Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 3 de diciembre de 1996.

**DISPONGO:**

*Artículo único.- Declarar de Utilidad Pública a la Asociación de Minusválidos Físicos de Álava «AMFA», inscrita con el número AS/R.P.A./00337 en el Registro General de Asociaciones, por considerar que contribuye*

Euskadiko interesen alde egiten duela uste baitugu.

Horrekin batera, otsailaren 12ko 3/1988 Legeko 22.2 atalean deklarazio horretarako ezarritako eskubideak aitortzen zaizkio elkarteari.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko abenduaren 3an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua.  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte  
Segurantza sailburua,  
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

Osasun sailburua,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus actividades.

Asimismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 22.2 de la Ley 3/1988, de 12 de febrero.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 1996.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Economía, Trabajo  
y Seguridad Social,  
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

El Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-6252

ERABAKIA, 1996ko irailaren 30eko, Hezkuntza sailburuordearena, irakasmila ez unibertsitarioetako euskal ikasliburuentzako laguntzak erabakiz.

Irakasmila ez unibertsitarioetako ikasliburugintzarako dirulaguntzak jakinaraziz 1996ko maiatzaren 14ko Aginduaren hogeita bigarren atalean (maiatzaren 29ko EHAA) esaten dena bete asmoz eta hartarako osatutako ebazpen-batzordearen proposamenez, honako hau

#### ERABAKI DUT:

*Lehenengoa.- I. eraskinean agertzen diren argitaletxe eta liburuei bertan adierazitako laguntzak ematea.*

*Bigarrena.- II. eraskinean agertzen diren eskabideak ez onartzea, laguntza-deialdian finkaturiko baldintza bat edo beste betetzen ez dutelako.*

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.- Erabaki honen kontra Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean errekurtoso arrunta jarri ahal izango da, EHAAnt argitara eman eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.*

*Bigarrena.- Erabaki hau Euskal Herriko Agintariatzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.*

Vitoria-Gasteiz, 1996ko irailaren 30a.

Hezkuntza sailburuordea,  
ALFONSO UNCETA SATRUSTEGUI.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### Nº-6252

RESOLUCIÓN de 30 de septiembre de 1996, del viceconsejero de Educación, por la que se adjudican subvenciones a libros y material didáctico para niveles no universitarios publicados en euskera.

De conformidad con el artículo 22 de la Orden del 14 de mayo de 1996 (BOPV del 29 de mayo de 1996), del consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan subvenciones a los libros y material didáctico para los niveles no universitarios publicados en euskera, a propuesta de la Comisión de Resolución nombrada al efecto,

#### RESUELVO:

*Primero.- Adjudicar a las editoriales y libros que se relacionan en el anexo I, las cantidades allí indicadas.*

*Segundo.- Denegar, por no cumplir alguno de los requisitos de la convocatoria, las solicitudes de subvención que se relacionan en el anexo II.*

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso ordinario ante el consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.*

*Segunda.- La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.*

Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 1996.

El Viceconsejero de Educación,  
ALFONSO UNCETA SATRUSTEGUI.